



BEIZAMAKO UDALA
(GIPUZKOA)

2010-04-26ko OHIKO UDALBATZA

Beizaman, bi mila eta hamargarren urteko apirilaren hogeita seian, arratsaldeko 17:30etan, udaletxeko udalbatza-aretoan, ohiko batzarra egin du Udalbatzak, alkatea – Ramon Gerrikagoitia Bengoetxea jauna– buru duela.

Zinegotzi hauek izan dira bileran: Igone Arruti Olazabal andrea, Itziar Arkonada Lizarraga eta Begoña Garmendia Vazquez andrea.

Ez da etorri eta ezin etorria adierazi du: Luis Javier Oregi Iñurrieta jaunak.

Ez da etorri eta ez du adierazi ezin etorria: Inork ere ez.

Udaleko idazkariak, Jose Mari Saiz Pagoaga jaunak, egin ditu idazkari-lanak.

Alkateak irekitzat jo du saio publikoa; segituan, eta haren baimenarekin, idazkariak jakinarazi du bilera egitea badagoela, Toki Erregimeneko Oinarriak Arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak eta 2568/1986 Errege Dekretua, azaroaren 28koa, Toki Erakundeen Antolakuntza, Funtzionamendu eta Eraentza Juridikoaren Erregelamendua onartzen dituenak, agindutako gutxieneko partaide-kopurua bertaratua baita.

LEHENENGO GAIA

AURREKO BILERETAKO AKTAK ONARTZEA

Bertaratutako zinegotziei 2010eko martxoaren 9ko eta martxoaren 26ko akten zirriborroak iritsi ez zaizkienez erabaki dute mahai gainean uztea.

BIGARRENGO GAIA

ALKATEAREN DEKRETUEN BERRI EMATEA

Alkateak honako dekretuen berri ematen dio udalbatzari:

- 2010-03-26ko 21/2010 Dekretua: Udalaren ohiko funtzionamendutik eratorritako hainbat fakturaren ordainketa onartzea, guztira 32.952,52 €.
- 2010-04-14eko 22/2010 Dekretua: Jakinaraztea Alejandro Monasterio jaunari zakurrekin izandako gertaera Bidegoiango udalerrian izan zela eta kexa bertan jartzeko.
- 2010-04-14eko 23/2010 Dekretua: Jakinaraztea Alejandro Monasterio jaunari



BEIZAMAKO UDALA
(GIPUZKOA)

Natur Eskolako sarrerako giltza utziko zaiela baina beti ere giltza erabili ostean bueltan ekarri beharko dutela.

- 2010-04-14eko 24/2010 Dekretua: Jakinaraztea Alejandro Monasterio jaunari Natur eskolako ludotekako gela erabili behar duten bakoitzean giltza udaletxean eskatu beharko dutela eta bueltatu bilerak amaitutakoan.
- 2010-04-14eko 25/2010 Dekretua: Jakinaraztea Idoia urtuzaga andreari baimena ematen zaiola pleno aretotik 4 aulki hartzeko beti ere aulkiak erabili ondoren bertan uzteko konpromesuekin.
- 2010-04-14eko 26/2010 Dekretua: Baimena ematea 10 lagunentzako aterpetxea erabili ahal izateko.
- 2010-04-20ko 27/2010 Dekretua: Udalaren ohiko funtzionamendutik eratorritako hainbat fakturaren ordainketa onartzea, guztira 10.816,61 €.
- 2010-04-19ko 28/2010 Dekretua: 2008. urteko aurrekontuko likidazioa.
- 2010-04-21ko 29/2010 Dekretua: Helaraztea URAK enpresari eusko Jaurlaritzako Osasun eta kontsumo Saileko gipuzkoako zuzendaritzatik iritsi zaigun ur analisisen emaitzak eta bestetik jakinaraztea gestioak egiten ari garela Gipuzkoako Ur kontsorzioan sartzeko.
- 2010-04-22ko 30/2010 Dekretua: Aritzaga baserriko fatxada konpontzeko baimena ez ematea Esteban Olazabal jaunari behar bezalako proiektua aurkeztu arte.
- 2010-04-22ko 31/2010 Dekretua: Jakinaraztea Ana Tolosa Ibarbia andreari sukaldea berritzeko baimena ematen zaiola baina terraza egiteko xehetasun gehiago ekarri beharko dituela.
- 2010-04-22ko 32/2010 Dekretua: Jakinaraztea Felix Urkizu jaunari ur bero eta berogailurako gas depositua eta bi eguzki panel jartzeko udal baimena ematen zaiola baina gas depositua ahalik eta estaliena ipini beharko duela landarez babestu ingurumen eragina gutxitzeko.



BEIZAMAKO UDALA
(GIPUZKOA)

- 2010-05-03ko 33/2010 Dekretua: GIROA S.A. enpresari adjudikatzea Udaletxe eta Natur Eskola pelet sarera lotzeko lanak.
- 2010-04-29ko 34/2010 Dekretua: Udalaren ohiko funtzionamendutik eratorritako hainbat fakturaren ordainketa onartzea, guztira 9.623,72 €.

HIRUGARREN GAIA

“EGUZKI S.L” ENPRESARI 10-15 EGUNEKO AUDIENTZIA EMATEA R21 EREMUKO URBANIZAZIO LANAK BEHAR BEZALA EZ BUKATZEAK HERRIKO UR HORNIDURA SAREAREN MATXURAK SORTU DITUELAKO.

Mahai gainean geratu da udal arkitekto aholkulariak oraindik falta zaizkien lanak zehazten dituen txostena aurkeztu arte.

LAUGARREN GAIA

“EGUZKI S.L”ENPRESARI ESKATZEA BEIZAMAKO UDALAK JASAN BEHAR IZAN DUEN ETA BERAIEI ORDAINTZEA DAGOKIEN ENERGIA KONTSUMOA.

Mahai gainean geratu da behar gaia hobeto aztertua izan arte.

BOSGARREN GAIA

EXCAVACIONES OTALAZTEI S.L” ENPRESARI ORDAINTZEKO FALTA DENA ORDAINTZEA.

Landa Gipuzkoa 32 dirulaguntzaren harira eta Beizamako Iturburu Ur biltegiko ur bilketa hobetzeko lanei lotuta “Excavaciones Otalastei, S.L” enpresak 2008/132 zenbakidun 71.860,09€ko faktura bat aurkeztu zuen.

Aipaturiko enpresak lanak faseka egin dituenaz ordainketak ere zatika egin zaizkio.

-2010eko otsailaren 12an 9/2010 Alkatetza Dekretuz 24.940 €tako lanen lehenengo ziurtagiria onartu zen eta ondorioz “Excavaciones Otalastei, S.L”



BEIZAMAKO UDALA
(GIPUZKOA)

enpresari 24.940, €ko (BEZ barne) ordainketa egin zitzaion

- 2010eko martxoaren 26an lanen 17.307,49 €tako bigarren ziurtagiria onartu zen eta ondorioz "Excavaciones Otalastei, S.L." enpresari 17.307,49 €ko (BEZ barne) ordainketa egin zitzaion.

Ikusirik, oraindik Beizamako Udalari 2008/132 zenbakidun faktura ordaintzeko 29.612,6 € falta zaizkiola, Udalbatzak, aho batez, ondorengo erabakia hartu du:

Lehena.- 2008/132 zenbakidun faktura ordaintzeko falta diren 29.612,6 €ak ordaintzea Excavaciones Otalastei, S.L." enpresari.

SEIGARREN GAIA

BEIZAMAKO UDALAREN ETA GIPUZKOA DONOSTIA KUTXAREN ARTEKO HITZARMENA EUSKARAREN ERABILERA AREAGOTZEKO

Euskararen erabilera areagotzeko helburuarekin Beizamako Udalaren eta Gipuzkoa Donostia Kutxaren arteko harremanak, ahozkoak eta idatzizkoak euskaraz izatea jasotzen duen hitzarmena ekarri da Udalbatzara onartua izateko.

Hitzarmenaren azalpena egin ondoren, Udalbatzak, aho batez, ondorengo erabaki du.

Lehena.- Onartzea akta honi atxikitzen euskararen erabilera areagotzeko Beizamako udalaren eta Gipuzkoa Donostia Kutxaren arteko hitzarmena

Bigarrena.- Alkatea eskuordetzea aipaturiko hitzarmena sinatu ahal izateko.



BEIZAMAKO UDALA
(GIPUZKOA)

ZAZPIGARREN GAIA

IPARKUTXA ERAKUNDE FINANTZARIOAREKIN ALTXORTEGI KREDITU BAT ONARTZEA.

Udaleko Idazkariak hitza hartzen du eta ondorengoa adierazten du:

“Enerpellet S.L” enpresak Beizamako herrian ur beroa eta berogailua biomasako galdara bidez hornitzeko lanak finantzatzeko helburuarekin Beizamako Udalarekin hitzarmen bat sinatu du 2010eko apirilaren 21eko datarekin.

Hitzarmena sinatu egin da nahiz eta “Enerpellet S.L” enpresak lan batzuk egitea falta zaizkiola onartu duen. Bukatzeko falta zaien lanen laburpena “Enerpellet S.L” k apirilaren 24an igorritako txostenean jasotzen dira.

Obrak finantzatzeko hitzarmenak bestek beste jasotzen du Beizamako Udalak altxortegi kreditua sinatu ahal izateko “Enerpellet S.L” enpresak aurretik kanon bat ordaindu beharko diola. Hain zuzen ere egindako inbertsio osoaren kostuaren (BEZa barne) eta Beizamako Udalak Erein eta Ihobetik jasoko duen dirulaguntzaren arteko diferentzia.

“Enerpellet S.L” enpresak aipaturiko kanona ordaindu ondoren, Beizamako Udalak Iparkutxa erakunde finantzariarekin altxortegi kreditua sinatuko du Erein eta Ihobetik jasotzeko duen dirulaguntza kopuruagatik, hau da, 238.429,54€ko altxortegi kreditua. Altxortegi kreditutik sortzen diren gastu guztiak “Enerpellet S.L” enpresak beregain hartuko ditu.

Beraz Udalbatzak, aho batez, ondorengoa ERABAKITZEN DU:

Lehenengoa : Iparkutxa erakunde finantzarioarekin 238.429,54 €ko epe laburreko altxortegi kreditu bat kontratatzea, entitate emailan eragiketa-mota honetarako ohizkoak diren interes, komisio eta amortizazio-epean amortizatzea.



BEIZAMAKO UDALA
(GIPUZKOA)

Bigarrena: Kreditu horrek altxortegiko defizit iragankor bati aurre egitea du helburu.

Hirugarrena.- Altxortegi kreditu hau bermatuko da Bermatuko da Udalak Erein eta Ihobetik jasotzeko duen dirulaguntzarekin eta honen ordezkapen gisa Udal Finantzaketako Foru-Fondoarekin.

Laugarrena.- Ahalmena ematea Udalbatzaren Buru den Ramon Gerrikagoitia Bengoetxea berau legez ordezkaturiko duenari, beronen izenean eragiketa honen formalizazio eta erabilerarako beharrezkoak liratekeen agiri publiko zein pribatu oro sinatu ahal ditzan.

ZORTZIGARREN GAIA

“EXCAVACIONES OTALAZTEI S.L”ENPRESAK AURKEZTURIKO FAKTURARI ERANTZUNA.

Landa Gipuzkoa 32 dirulaguntzaren harira eta Beizamako Iturburu Ur biltegiko ur bilketa hobetzeko lanen barruan “Excavaciones Otalastei, S.L” enpresak 2008/152 zenbakidun 2.161,68 €ko faktura bat aurkeztu zuen.

Udal arkitekto aholkulariaren esanetan aipaturiko fakturan jasotzen diren lanak 2010eko martxoaren 26an udalbatzan onartu zen 17.307,49 €ko bigarren ziurtagiriaren barruan daude.

Beraz Udal arkitekto aholkulariak adierazitakoa kontutan izanda Udalbatzak, aho batez, ondorengo erabakia hartu du:

Lehena.- Excavaciones Otalastei, S.L.”enpresari jakinaraztea 2008/152 zenbakidun fakturan jasotzen diren lanak 2010eko martxoaren 26an udalbatzan onartutako bigarren ziurtagiriaren barruan daudela.



BEIZAMAKO UDALA
(GIPUZKOA)

BEDERATZIGARREN GAIA

ONARTZEA, BADAGOKIO, SAIAZ GIZARTE ZERBITZU MANKOMUNITATEARI EGIN BEHARREKO EKARPENA .

Ikusirik, Saiaz Gizarte Zerbitzu Mankomunitateak aurkeztu duela bere ohiko funtzionamenduagatik Beizamako Udalari ordaintzea dagokion ekarpena.

Ikusirik, Beizamako Udala Saiaz Gizarte Zerbitzu Mankomunitateko partaidea dela.

Ikusirik, Beizamako Udala oraindik ez duela 2010. urteko aurrekontua onartu.

Aurrekoa kontuan hartuz eta 7/1985 Legeak, apirilaren 2koak, Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituenak 22.2 artikuluan araututakoa, Udalbatzak bertan daudenek aho batez harturiko erabakiarekin, ondokoa adosten dute:

Bakarra.- Jakinaraztea Saiaz Gizarte Zerbitzu Mankomunitateari oraingoz iazko ekarpen berdina mantentzea eta ondorioz ekarpenaren %50a egitea onartzen da.

Aztertzeko beste gairik ez dagoenez, 18:30etan eman da amaitutzat bilera. Han esandako guztia aktan jaso eta idazkari nauzuen honek EGIAZTATZEN dut.